



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2018ko 2. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra handiko lizentzien kopuruak gora egin du lurralde historiko guztietan, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2018ko bigarren hiruhilekoan obra handiko 948 lizentzia eman zituzten, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaitza horiek 2018ko lehen hiruhilekoan jasotakoak baino nabarmen handiagoak dira. Izan ere, 149 lizentzia gehiago eman ziren, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 18,6ko igoera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin konparatuta, orobat, jarduerak gora egin du: 167 lizentzia gehiago onartu dira; beraz, % 21,4ko hazkundera izan da.

Bizkaian eman dira hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 54,7; guztira, 519. Atzetik doa Araba 226 lizentziarekin, guztien % 23,8. Gainerako 203ak, guztien % 21,4, Gipuzkoakoak dira.

EAEko lurralde historikoen artean, Araban egin du gehien gora obra handiko lizentzien kopuruak 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 42,1 egin du gora erreferentzia-aldian (67 lizentzia gehiago). Gipuzkoako gorakada Arabakoa baino apalagoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino 27 lizentzia gehiago, hau da, % 15,3ko gorakada. Bizkaian, aldiz, emandako lizentzien kopuruak gora egin du % 11,9 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean; guztira, 55 lizentzia gehiago izan dira.

Urtearteko emaitzak positiboak izan dira lurralde historiko guztietan, baina intentsitate desberdinez. Bizkaiko Lurralde Historikoan 101 lizentziako igoera absolutua izan da 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 24,2ko gorakada erlatiboa. Gipuzkoan, urtearteko igoaldia 60 lizentziakoa izan da, eta epealdiko gorakada erlatiboa, aldiz, % 42,0. Araban, aitzitik, emandako lizentzien kopurua ez da horrenbeste igo; izan ere, 2017ko bigarren hiruhilekoan obra handiko 220 lizentzia eman ziren, 2018ko lehen hiruhilekoan baino 6 gutxiago (226 lizentzia, % 2,7ko igoerarekin).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziak nagusi dira oraindik ere.

2018ko bigarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** araberako banaketan, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehazki, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 82,4 izan dira (2018ko lehen hiruhilekoko % 83,1etik behera, baina 2017ko laugarren hiruhilekoko % 80,9tik gora), eraikuntza berriko eraikinetarako % 15,3 izan dira (2018ko lehen hiruhilekoko % 14,6tik gora, baina 2017ko laugarren hiruhilekoko % 17,0tik behera) eta eraispenetarako, berriz, % 2,3. Kopuru absolutuak



honako hauek dira: 781 birgaitze-lizentzia (2018ko lehen hiruhilekoan baino 117 gehiago, % 17,6ko igoerarekin), 145 eraikuntza berrikoak (28 lizentzia gehiago, % 23,9ko igoerarekin) eta 22 eraispen-lizentzia, aurreko hiruhilekoko kopurua baino lau gehiago.

2018ko bigarren hiruhilekoan, aztertzen den lurralde historikoa zein den, ezberdin banatzen dira eraikuntza berriko lizentzien eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia. Gipuzkoan, eraikuntza berriko lizentzien pisu erlatibo zertxobait handiagoa dute (guztira emandako obra handiko lizentzien % 16,7; Araban, aldiz, halakoak % 16,4 dira, eta Bizkaian, azkenik, % 14,3). Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan, eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Gipuzkoan, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 77,3 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 81,9 da, eta Bizkaian % 84,6.

1 taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 2. hiruhilekoa.

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2018ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	948	100,0	149	18,6	167	21,4
	Eraikuntza berria	145	15,3	28	23,9	32	28,3
	Birgaitzea	781	82,4	117	17,6	132	20,3
	Eraispena	22	2,3	4	22,2	3	15,8
Araba	Guztira	226	100,0	67	42,1	6	2,7
	Eraikuntza berria	37	16,4	10	37,0	1	2,8
	Birgaitzea	185	81,9	56	43,4	6	3,4
	Eraispena	4	1,8	1	33,3	-1	-20,0
Bizkaia	Guztira	519	100,0	55	11,9	101	24,2
	Eraikuntza berria	74	14,3	18	32,1	28	60,9
	Birgaitzea	439	84,6	39	9,8	79	21,9
	Eraispena	6	1,2	-2	-25,0	-6	-50,0
Gipuzkoa	Guztira	203	100,0	27	15,3	60	42,0
	Eraikuntza berria	34	16,7	0	0,0	3	9,7
	Birgaitzea	157	77,3	22	16,3	47	42,7
	Eraispena	12	5,9	5	71,4	10	500,0

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa

2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren arteko epealdian ikusienez, Araban nabarmen egin du gora eraikuntza berriko lizentzien kopuruak (+% 37,0), eta, are gehiago, birgaitzeko obrenak (+% 43,4). Gipuzkoan ere birgaitzeko lizentziek gora egin



dute (+% 16,3), eta eraikuntza berrikoak, berriz, egonkortu egin dira (+% 0,0; hiruhileko bietan, 34 lizentzia eman dira). Bizkaian, gorakada erlatiboa nabarmena da eraikuntza berriko lizentziei dagokienez (+% 32,1); gorakada txikiagoa dute, oster, birgaitze-jarduerekin lotutakoek (+% 9,8).

Urtearteko bilakaerari bagagozkio, Bizkaiak izan du bilakaerarik onena eraikuntza berriko lizentzietan, mota horretako lizentzia dezente gehiago eman ditu eta (+% 60,9). Gipuzkoan eta Araban gorakadak apalagoak izan dira: % 9,7 Gipuzkoan, eta % 2,8 Araban. EAE osoa aintzat hartuta, urtearteko aldakuntza positiboa ikusten da obra berriko lizentzietan; hala, 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 28,3ko aldakuntza erregistratu da, obra handiko 32 lizentzia gehiago eman baitira.

Birgaitzeko lizentziek ere gora egin dute EAEn 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta 2018koaren artean, baina eraikuntza berriko lizentziek baino motelago (+% 20,3; eraikuntza berrikoek, aldiz, +% 28,3). Igoera hori Bizkaian gertatutako gorakadarekin dago lotuta (+% 21,9), EAEn batezbestekoa baino apur bat handiagoa izan baita, bai eta Gipuzkoan neurri handiagoan izandakoarekin ere (+% 42,7). Araba da, ordea, tankera horretako lizentzien gehikuntza txikiena izan duen lurraldea (+% 3,4).

Metatutako urtearteko datuek erakusten dutenez, 2018ko bigarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopurua igo egin da EAEn; ez, ordea, Araban.

Urteko datu metatu horiek 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2018ko bigarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; aurreko urteko hiruhileko berdinen (2016ko hirugarren hiruhilekotik 2017ko bigarren hiruhilekora) urteko metatuarekin konparazioa eginez gero, ikusten denez, 221 lizentzia gehiago eman dira; hau da, 2017ko epealdi konparagarrian baino % 7,1 gehiago. Igoera txikiagoa da eraikuntza berriko lizentzien kasuan, EAEn % 2,2 gehitu baitira (11 lizentzia gehiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, +% 7,9 (201 lizentzia gehiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak ere gora egin du, % 14,3; hots, 9 lizentzia gehiago eman dira.

Birgaitzeari dagokionez, 2018ko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera ona Bizkaian eta Gipuzkoan izan da; etxebizitza berriari dagokionez, Gipuzkoan eta Araban egin du onera.

Urtearteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, agerian geratzen da EAEn dinamika ezberdinak daudela.

Bizkaiak gorakada nabarmena izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berdinarekin alderatuta (+% 11,9 egin du gora, 196 lizentzia gehiago eman baitira). Arrazoi nagusia da Bizkaiko Lurralde Historikoan beste lurraldeetan baino gehiago hazi dela birgaitzea (+% 15,1). Oster, eraikuntza berriko obra-lizentziei dagokienez, Bizkaian soilik gertatu da gutxitzea: -% 3,8; 9 lizentzia gutxiago.



2 taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua, 2017ko 3. hiruhilekotik 2018ko 2. hiruhilekora		Metatua, 2016ko 3. hiruhilekotik 2017ko 2. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.315	100,0	3.094	100,0	221	7,1
	Eraikuntza berria	502	15,1	491	15,9	11	2,2
	Birgaitzea	2.741	82,7	2.540	82,1	201	7,9
	Eraispena	72	2,2	63	2,0	9	14,3
Araba	Guztira	768	100,0	801	100,0	-33	-4,1
	Eraikuntza berria	132	17,2	125	15,6	7	5,6
	Birgaitzea	623	81,1	662	82,6	-39	-5,9
	Eraispena	13	1,7	14	1,7	-1	-7,1
Bizkaia	Guztira	1.841	100,0	1.645	100,0	196	11,9
	Eraikuntza berria	229	12,4	238	14,5	-9	-3,8
	Birgaitzea	1.585	86,1	1.377	83,7	208	15,1
	Eraispena	27	1,5	30	1,8	-3	-10,0
Gipuzkoa	Guztira	706	100,0	648	100,0	58	9,0
	Eraikuntza berria	141	20,0	128	19,8	13	10,2
	Birgaitzea	533	75,5	501	77,3	32	6,4
	Eraispena	32	4,5	19	2,9	13	68,4


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa

Arabara, 33 lizentziako beherakada urtearteko % 4,1eko atzerakada metatua ekarri du obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia handiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Birgaitzeko lizentziak, urtearteko datuak hartuta, % 5,9 murriztu dira; eraikuntza berriko lizentzien kopurua, ordea, handitu egin da (+% 5,6), 7 lizentzia eman baitira.

Gipuzkoa, bere aldetik, nabarmendu egiten da, emandako lizentzien kopuruan hobekuntzarik handiena izan duelako (+% 9,0). Birgaitzeko lizentziak % 6,4 ugaritu dira urtearteko datuetan (32 lizentzia gehiago), eta eraikuntza berriko lizentzien igoera are handiagoa izan da, +% 10,2, 13 lizentzia gehiago eman direlako.



1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE 1998-2018.



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika. 2018ko 2. hiruhilekoa

2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2018ko bigarren hiruhilekoan onera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baita bizitegirako ez direnenak ere, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

2018ko bigarren hiruhilekoan, obra handiko 926 lizentzia eman dira eraikuntza berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (695, guztien % 75,1) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 231k, guztien % 24,9, bizitegirako ez diren erabilerarako proiektuei.

2018ko bigarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 63,2). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 24,2 bideratu zen, eta gainerako % 12,6a, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek gora egin



dutela (+% 15,6) eta gorakada hori nabarmenagoa izan dela bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziei dagokienez (+% 28,3).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien gorakada horrek, 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean gertatua berau, **zerbitzu**-sektorearekin (+% 47,5) eta **lehen sektore**arekin (+% 20,8) izan du lotura, batez ere; **industriaren** eta **energiaren** sektorean, aldiz, atzera egin dute pixka bat (% 1,8).

2017ko bigarren hiruhilekoaren eta 2018koaren arteko **urteko** konparazioak datu positiboak ematen ditu, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 18,4), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (+% 32,0).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 2. hiruhilekoa.

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2018ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	926	100,0	145	18,6	164	21,5
Bizitegitarako	695	75,1	94	15,6	108	18,4
Bizitegitarako ez direnak	231	24,9	51	28,3	56	32,0
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	29	12,6	5	20,8	13	81,3
- Industria eta energia	56	24,2	-1	-1,8	5	9,8
- Zerbitzuak	146	63,2	47	47,5	38	35,2

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa

2017ko eta 2018ko bigarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, gorakadak erregistratu dira jardueraren sektore guztietan. Igoerarik handiena lehen sektoreak izan du (+% 81,3), eta intentsitate txikiagoarekin industria eta energiaren sektoreak (+% 9,8); zerbitzuen sektoreak, aldiz, tarteko igoera izan du (+% 35,2).

Urtearteko kopuru metatuetan, gora egin dute bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruak eta bizitegi-erabilerakoena.

Metatutako urtearteko adierazleen aurreikuspenak positiboak dira bi tipologietan, baina intentsitate desberdinarekin. Hartara, 2017ko bigarren hiruhilekora arteko urtearteko kopuru metatuak (2016ko hirugarren hiruhilekotik 2017ko bigarrenera artekoak) 2018ko hiruhileko berdinari dagozkionekin (2017ko hirugarren hiruhilekotik 2018ko bigarrenera artekoak) alderatzen baditugu, ikusten dugu bizitegi-erabilerarako



emandako lizentzietan gorakada txiki bat izan dela (+% 6,8) eta bizitegi-erabilerarako ez direnak ere ugartu egin direla (+% 7,5).

4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua, 2017ko 3. hiruhilekotik 2018ko 2. hiruhilekora		Metatua, 2016ko 3. hiruhilekotik 2017ko 2. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.243	100,0	3.031	100,0	212	7,0
Bizitegitarako	2.441	75,3	2.285	75,4	156	6,8
Bizitegitarako ez direnak	802	24,7	746	24,6	56	7,5
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	88	11,0	72	9,7	16	22,2
- Industria eta energia	231	28,8	203	27,2	28	13,8
- Zerbitzuak	483	60,2	471	63,1	12	2,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2018ko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, hobekuntza bat gertatu da jarduera-sektore guztietan lizentzien kopuruaren bilakaeran. Batez ere, lehen sektorean ugartu dira (+% 22,2), eta, ondoren, industriaren eta energiaren sektorean (+% 13,8). Zerbitzu-sektorean, berriz, beste sektoreetan baino susperraldi xumeagoa gertatu da (+% 2,5).

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitzeke aurreikuspenak hobetu egin dira aurreko hiruhilekoaren aldean, baita aurreko urteko hiruhileko berdinarekin aldean ere.

2018ko bigarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 695 lizentziek berekin dakartzate 1.543 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak (aurreko hiruhilekoan baino 675 gehiago). Etxebizitza horietatik 1.253 eraikuntza berriko jarduketei lotzen zaizkie, eta gainerako 290ak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira.

Zehaztu behar da eraginpean dauden eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik,



gorakada handia detektatu da 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean, EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruan (+% 94,9). 2017ko bigarren hiruhilekoko kopurua 2018ko hiruhileko berdineko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoerak onera egin duela, baina modu ez hain nabarmenean, eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (+% 26,1).

Bestalde, hobekuntza ikusten da ere 2018ko bigarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten diren etxebizitzaren kopuruan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 28,9), eta are hobekuntza handiagoa 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (+% 42,2).

2018ko bigarren hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 905 etxebizitza daude halako jarduketei lotuta; haietako % 82,9 eraikuntza berrikoak dira (750 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta nabarmen egin du gora eraikuntza berriko etxebizitza kopuruak (+% 190,7), eta intentsitate txikiagoz 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (+% 94,3). Birgaitze-jarduketekin lotuta dauden etxebizitzaren kopuruari dagokionez, halakoen bolumena ere handitu egin da 2018ko lehen hiruhilekoari dagokionez (+% 44,9), eta are gehiago handitu da 2017ko bigarren hiruhilekoari dagokionez (+% 49,0).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 2. hiruhilekoa.

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta.)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2018ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.543	100,0	675	77,8	345	28,8
	Eraikuntza berria	1.253	81,2	610	94,9	259	26,1
	Birgaitzea	290	18,8	65	28,9	86	42,2
Araba	Guztira	84	100,0	-109	-56,5	-84	-50,0
	Eraikuntza berria	31	36,9	-102	-76,7	-94	-75,2
	Birgaitzea	53	63,1	-7	-11,7	10	23,3
Bizkaia	Guztira	905	100,0	540	147,9	415	84,7
	Eraikuntza berria	750	82,9	492	190,7	364	94,3
	Birgaitzea	155	17,1	48	44,9	51	49,0
Gipuzkoa	Guztira	554	100,0	244	78,7	14	2,6
	Eraikuntza berria	472	85,2	220	87,3	-11	-2,3
	Birgaitzea	82	14,8	24	41,4	25	43,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa



Gipuzkoan, berriz, 554 etxebizitzatarako lizentziak eman dira 2018ko bigarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 472 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba positiboa dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 87,3), baina pixka bat txarrera egin du 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (-% 2,3). Birgaitzeko jarduerari dagokionez, aldiz, Gipuzkoan handitu egin da birgaituko diren etxebizitzaren kopurua, 2018ko lehen hiruhilekoaren eta oraingoaren artean garatutako jarduerari dagokionez (+% 41,4), eta modu bertsuan gertatu da aurreko urteko hiruhileko berdinari dagokionez (+% 43,9).

Arabian, azkenik, 84 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Beherakada handia egon da 2018ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (-% 56,5), eta horrek zerikusia dauka azken hiruhilekoan izan den eraikuntza berriei lotutako ekintzen beherakada handiarekin (-% 76,7); urtearteko bilakaerari dagokionez ere, beherakada handia izan da (-% 75,2). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak % 11,7 egin du behera, 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; aitzitik, birgaitzeko emango diren lizentzien kopuruak hobera egin du, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta (+% 23,3).

Urtearteko kopuru metatuetan hobera egin dute Arabako emaitzek, eraikuntza berriko etxebizitzari dagokionez; birgaitzearen kasuan, EAEko lurraldeen artean Bizkaian eta Arabian egin dute hobera emaitzek.

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, **emaitzen urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Analisi horren arabera, 2018ko bigarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jarduerak 5.291 etxebizitzari eragiten dio guztira. Horrek esan nahi du % 2,8ko gorakada egon dela (142 etxebizitza gehiago), 2017ko bigarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerari dagokionez. Gorakada hori batez ere birgaitze-jarduketekin lotzen da, ukitutako etxebizitzaren kopurua % 11,6 handitu baita (103 etxebizitza gehiago). Eraikuntza berriko jarduketei dagokionez, emaitzen hobekuntza txikiagoa da (+% 0,9; 2017ko bigarren hiruhilekoan, aurreikusitako jarduketek 4.264 etxebizitza ukitu zituzten, eta, 2018ko aldi berdinean, 4.303 etxebizitza).

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzeko portaera desberdinek baldintzatzen dute. Hala, birgaitzearen arloan Bizkaiak eta Arabak izan dute bilakaera positiboa. Bizkaian urtearteko kopuru metatuak gora egin du 2017ko eta 2018ko bigarren hiruhilekoen artean (+% 27,1), eta Arabian, berriz, igoera apalagoa izan da (+% 7,7). Gipuzkoan, aldiz, birgaitze-ekintzen urtearteko jaitsiera metatua gertatu da 2018ko bigarren hiruhilekoan (-% 6,7).

Lurraldeen arteko desberdintasunak ere nabarmenak dira etxebizitza berrietarako aurreikusitako jarduketei dagokionez. Kasu horretan, ikusten da Arabian jarduera nabarmen hobetu dela (+% 40,2). Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren, % 5,1 eta % 1,6 jaitsi da 2018ko bigarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua, 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta.



6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua, 2017ko 3. hiruhilekotik 2018ko 2. hiruhilekora		Metatua, 2016ko 3. hiruhilekotik 2017ko 2. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.291	100,0	5.149	100,0	142	2,8
	Eraikuntza berria	4.303	81,3	4.264	82,8	39	0,9
	Birgaitzea	988	18,7	885	17,2	103	11,6
Araba	Guztira	759	100,0	590	100,0	169	28,6
	Eraikuntza berria	534	70,4	381	64,6	153	40,2
	Birgaitzea	225	29,6	209	35,4	16	7,7
Bizkaia	Guztira	2.827	100,0	2.758	100,0	69	2,5
	Eraikuntza berria	2.330	82,4	2.367	85,8	-37	-1,6
	Birgaitzea	497	17,6	391	14,2	106	27,1
Gipuzkoa	Guztira	1.705	100,0	1.801	100,0	-96	-5,3
	Eraikuntza berria	1.439	84,4	1.516	84,2	-77	-5,1
	Birgaitzea	266	15,6	285	15,8	-19	-6,7

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika 2018ko 2. hiruhilekoa



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldeztatik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldeztatik eraispentzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



ganean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispn-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2018ko 2. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN.....	6
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	8
ALDERDI METODOLOGIKOAK	12

Taulen aurkibidea

1 taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 2. hiruhilekoa.	3
2 taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 2. hiruhilekoa.	7
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.	8
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 2. hiruhilekoa.	9
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko datu metatuak, 2018ko 2. hiruhilekoan.	11

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE 1998-2018.....	6
---	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estadistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56

WEBGUNA: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estadistikak/>

Helbide elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus